

HISTORIA IDAZTEAN ETA IRAKASTEAN SORTZEN DIREN TERMINOLOGIA ARAZOAK ETA PROPOSAMENAK EGIN BEHARRA: ERREGE-ERREGINEN IZENEN ADIBIDEA

Jaione Agirre García
Euskal Herriko Unibertsitatea

SARRERA

Historiako klaseak ematean eta historiari buruzko idatziak egiten ditugunean, oraindik orain, mota askotako arazoekin egiten dugu topo. Lehenik eta behin, gure lanerako ohikoenak diren terminoak ez daude finkaturik, askotan ezta oinarrizkoenak ere (historiaren aroak, adibidez). Zer esanik ez, bestelako hitzen kasuan —askotan gure ikasleen eta irakurleen kalterako ez ezik geure kalterako ere—, erdarara jo ohi dugu mailegu “okerren” bila (gaztelaniara maizen), ortografia “euskaldunduz” konformatzen garelarik gehienetan.

Onomastikak dauzkan arazoak bereziak dira, gainera, onomastikaren inguruan lan gutxiago egin delako (salbuespen garrantzitsuak ere badira); horien artean, errege eta erreginen izenak landuenak izan badira ere, arazoak sortzen jarraitzen dute erabiltzaileontzat. Arazo hauei guztiei hurbilpen txiki bat egin nahiko nieke, eta, azken gai zehatz honen kasuan, orain arte egin diren proposamenak aztertu, erkatu eta bateratu, historia irakasle eta historialari naizen aldetik. Araurik emateko posizioan ez naizen arren, nire esperientziak sortu dizkidan zalantzak eta aurkitu ditudan erantzunak, herrentasunak eta gabeziak komentatu nahiko nituzke. Beraz, ez dut proposamen zehatzik egingo (taula edo zerrendarik), baizik eta sistematizatu behar ditugun puntuak aztertu, orain arte egin diren lanen harira, erakutsiz onomastikako kasu hau zein bihurri, aldakor eta asistematikoa den (beste izenak baino are gehiago, gainera).

1. HISTORIALARI BATEK IZATEN DITUEN TERMINOLOGIA ARAZOAK OROKORKI ETA ORAIN ARTE TERMINOLOGIA HISTORIKOAZ EGIN DIREN LANAK ETA AHALEGINAK

Euskaraz zientzia egiteak bere arazo terminologikoak oraindik konpondu gabe dituela esatean, ez dut ezer berririk aurreratzen.

Hala ere, badirudi, historia arloa ez dela lehenengoetakoa izan arazo horiei aurre egiten. Eibarren abenduan egin ziren Zientzia eta Teknologia arloetako Prosa Zientifikoari Buruzko I. Biltzarrean¹ argi geratu zen oraindik lan asko dagoela egiteko “natura-

¹ Eibar, 2001eko abendua —*Hegats* aldizkarian argitaratua dago (2002)—.

zientzien” eta teknologiaren arloetan, baina, ikusten da, dudarik gabe, bide batzuk jorratzen hasiak direla aspaldi honetan. Giza-zientzietan are atzerago gaudela esatera ausartuko nintzateke, nahiz eta ahaleginak egon diren eta arlo hauetan lan egiten duen jenderik falta ez den (nik baino lan gehiago egin dutenak, dudarik gabe); kontura gaitezen, besteak beste, Historiako lizentzia Gasteizko campusean euskaraz ematen dela, lehengo Geografia eta Historiako lizentzia zaharrea oso-osorik, eta oraingoan beharrezko irakasgaiari erreparatzen badiegu. Eta horiez gain, aurrerago aipatuko diren beste ahaleginak ere izan dira.

Nire esperientzia pertsonaletik, Prosa Zientifikoaren I. Biltzar hartan ikusi nuena izan zen, benetan ez garela hain desberdinak zientzia analitikoak eta giza-zientziak terminologiako arazoei dagokienez. Hots, aztertzen ditugun gaiak oso urrunduak diren edo diruditen arren, euskaraz lan egitean ditugun arazoak, funtsean, berdinak direla: terminologia garatu falta (batzuetan ez dakigu gauzak nola esan behar diren euskaraz); edo termino berdina izendatzeko hitz desberdinen erabilera, bakoitzaren ahaleginaren ondorioz (hausnartuak eta landuak izan diren ahaleginak kasu ia guztietan). Eta, gainera, zalantza bera: nork egin behar du bateratzea? Euskaltzaindiak? Beste talde batek? Espezialistek? Zeintzuk? Hots, historialariek, filologoen? Eta azken kasu honetan noren “bedeinkazioa” behar dute termino berriek? Azken galdera honen erantzuna da agian zailena dirudiena, baita errazena ere, beharbada, erabakia hartzen duenak hartzen duela eta bedeinkapena ematen duenak ematen duela, erabilera da azkenean onespina ematen duena. Beraz, termino “onak” bultzatu behar dira eta gure ahalegina da onartzea eta erabiltzea (intsumisiotxoak intsumisio...). Gainera —eta hau azpimarratu nahiko nuke berriro— arautua ez egoteak ez du esan nahi ez dagoenik ezer eginda, eta hortik abiatu behar gara, eginda dagoen lan horretatik, alegia (Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan ager daitezkeen hitz solteak, EHU egindako lana, Elhuyarren eta UZEIn egindako ahaleginak uztartuz...).

Historialari gisa zein arazo praktiko agertzen zaizkidan agertu nahi nuke, labur bada ere. Klaseak ematean edo artikulu bat idaztean, batzuetan ez da erraza esan nahi dena adierazteko hitz zehatzak aurkitzea (eta ez naiz norbere dialektika arazoez ari bakarrik). Zoritxarrez edo zorionez, gure inguruko erdaretan irakurtzen ditugu oinarrizko bibliografiako liburuak, eta, zer esanik ez, monografia espezializatuak. Erdara hauetan ere, terminologia arazoak badituzte, ez gaitezen engaina, baina gure aldean urteetako esperientzia daramate —kasu batzuetan mendeetakoa—, baita aurrerapena ere, hitza onartzen bazait, erabileraren poderioz besterik ez bada. Beraz, euskarazko formazioa jaso dugun irakasle eta historialariok ere, erdarazko terminologia menperatu behar dugu eta, kasu askotan, zailtasunak ditugu hori euskaraz emateko. Guztiok dakigu euskaratzea ez dela zuzenean “itzulpena” egitea, askotan, hori egitea ez delako benetan zerbait zuzen itzultzea.

Historiako aroetatik bertatik hasita, gauzak ez daude oso ziur. Hiztegi Batuan *antzina*, *antzinaro* eta *antzinate* hitzak biltzen dira; baita *paleolitiko* eta *neolitiko* ere (izen edo adjektibo gisa diren aipatzen ez den arren, kontu arras garrantzitsua). Beraz, hortik abiatuta Elhuyarren hiztegiak jasotzen dituenak azter ditzakegu: aipatutako *Antzinaro* ('Edad Antigua'), *antzinate* ('antigüedad'), *Erdi Aro*², *Harri-Aro*, *Metal-Aro*, *Burdin Aro*, *Brontze-Aro*, *Aro Moderno*, *Gaur Egungo Aro* ('Edad Contemporánea') agertzen dira eta *Goiz Erdi Aro* ('Alta Edad Media') eta *Berant Erdi Aro* ('Baja Edad Media'). Baina ikusten denez, desadostasunak agertzen dira, zergatik batzuk marrarekin eta besteak gabe? (Euskaltzaindiaren marraren arauan³, letra larriz jarritako hitzetan ez dela beharrezkoa marra adierazten den arren, jarri edo ez jarri, denetan berdin egin beharko litzateke). Gainera, historialarien artean ere, *Aro Modernoa*, *Aro Berria* bezala aipatu ohi dugu batzuek (neuk barne) eta, aldiz, *Gaur Egungo Aroa*, *Aro Garaikidearentzat* baino ('Edad Contemporánea'), 'Mundo Actual' delakoari aplikatzen diogu, hau da, Bigarren Mundu Gerraren ondoko garaiari. Bestalde, eredu gisa agertzen diren *Goiz Erdi Aro* ('Alta Edad Media') eta *Berant Erdi Aro* ('Baja Edad Media'), normalean *Goi Erdi Aroa* eta *Behe Erdi Aroa* bezala erabili ohi ditugu, eta *Erdi Aro Berantiarra* edo *Beranta* —izenondo izanik atzetik jarrita Hiztegi Batuaren arabera— 'Edad Media Final' litzateke, hots, azken urteak, eta ez XIII. mendetik aurrera ezagutzen den aldia, aldi horren azken zatia baizik. *Neolitiko* eta *Paleolitiko* hitzei dagokionez, *neolitiko* eta *paleolitiko* adjektibo bezala erabili dira Elhuyarren eta aroak, aldiz, *Neolito Aroa* eta *Paleolito Aroa* dira. Hiztegi Batuan ez da zehazten izena edo adjektiboa diren *paleolitiko* eta *neolitiko*, beraz, pentsa genezake, beharbada, *Neolitikoa* edo *Neolito Aroa* sinonimoak izan daitezkeela, eta berdin, bada, *Paleolitikoa* eta *Paleolito Aroa*, aroak eurak izendatzean. Elhuyarren gainera *Behe-Paleolitoa*, *Erdi-Paleolitoa* eta *Goi-Paleolitoa* aipatzen dira, *Goiz Erdi Aroarekin* kontraesanean dauden marrarengatik berriro (hiru elementu direlako ote?) eta *Goi- Goiz-*desberdintasun horretan (esanahi desberdinak dituztelako ote?)⁴.

Har dezagun beste adibide praktiko bat. Gaztelaniaz *califato* terminoarekin edo haren moduko hitzekin gertatzen dena oso adierazgarri da. Zelan eman euskaraz? Hiztegietan begiratzea da egiten dugun lehenbiziko gauza, eta konturatzen gara esanahi aldetik *califato* hitzak esanahi ugari dituela:

Real Academia de la Lengua Españolaren (2001: 272) hiztegiaren arabera, hauxe da definizioa:

² Berdin dator Hiztegia 3000n ere "Castellano-euskara" atalean (2002: 214).

³ 25. araua da.

⁴ UZEIk egin zuen Historia hiztegi aurreproiektuan (UZEI 1979): "Historiaurrea, Antzinatea, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Aro Garaikidea" formak dauzka, ez dakigu hiztegia egin bazen zertan geratuko ziren.

- (1a) CALIFATO. m. Dignidad de califa. || 2. Territorio gobernado por el califa. || 3. Tiempo que duraba el gobierno de un califa. || 4. Periodo histórico en que hubo califas⁵.

Eta horiek guztiak eman beharrean gara euskaraz, hasieran ontzat eman dugun *kaliferri* euskarazko baliokidea, testuinguruaren arabera, baliorik gabea gertatzen baitzaigu⁶.

Noski, Hiztegi Batuan ere ez daukagu bat-bateko erantzuna. Eta gutxiago kontuan izanda Hiztegia Batua idazketa formez ari dela oraindik, eta oso gutxitan ematen dituela esanahiak eta erabilera adibideak (oso-oso gutxitan esango nuke), denbora denborari (etorriko da, baina Euskaltzaindia atzeratuxea dabil batzuetan, benetan dauden beharrizan ugarietara erantzun ezinik, ez delako denera iristen). Orduan, bertan, *kalifa* eta *kalifaldi* hitzak agertzen dira, beraz, horren arabera bermea dugu hitza onartua dela jakiteko eta eratorriak eraiki daitezkeela. Zeharbidetik bilatu behar dira erantzunak, hots, ez dator *califato* leku edo eremu legez (hots kalifaren aginte eremu gisa), baina bai *konderria* kondearen aginte edota jabego eremua dena; beraz, *kaliferri* proposatzen da horren baliokide gisa, etab. (*erregetzatik kalifatza*).

Horrela, Elhuyarren hiztegian (2001: 107) zera dator:

- (1b) CALIFATO. s.m. 1. [*cargo*] Kalifatza. *Sólo accedían al califato los descendientes de Mahoma*: Mahomaren ondorengoek soilik lor zezaketen kalifatza. 2. [*tiempo de gobierno*] Kalifaldi. *En el califato de Abderramán III, Córdoba alcanzó un gran desarrollo cultural*: Abderrahman [*sic.*⁷] III.aren kalifaldian Cordobak [*sic.*] kultur garapen handia lortu zuen. 3. [*territorio*] Kaliferri. *El califato de Córdoba era más grande que la Andalucía actual*: Kordobako [*sic.*] kaliferria gaur egungo Andaluzia baino handiagoa zen.

Placido Mugica-renean (1973: 137) adiera bat gehitzen da, *jaurgoaren* parekoa baina kalifarentzat, hots, jaunaren boterea ordeztatu —era laburrean definitzeko—, kalifarena:

- (1c) CALIFATO 1. (*dignidad*) kalifazgo. 2. (*tiempo*) kalif-aldi [*sic.*]. 3. (*territorio*) kalif-erri [*sic.*].

⁵ Esan behar da Maria Moliner (1998: 466) aztertzean, definizio laburragoa dakarrela:

“califato m. Dignidad de los califas. • Territorio en que gobernaban. • Periodo histórico en que existieron”.

⁶ Zer esanik ez, *kalifato* forma.

⁷ Elhuyarren izendegian “Abd ar-Rahman” dator. Akatsa ala geroagoko zuzenketa?

*Hiztegia 3000*an, “Castellano-euskara” atalean (1996: 83) eta (2002: 93):

(1d) CALIFATO: *m.* 1. *cargo*: kalifatza. 2. *territorio*: kalifa-herri. 3. *tiempo*: kalifaldi.

Apur bat atzeratua geratu da grafia aldetik⁸, baina aurrekoen bidetik dabil hori ere.

Sarasolarenean (1996: 645) ez dator hitza, baina zera dio *kalifa* hitzaren agerpenaz:

(1e) KALIFA. *iz.* (*1965; cf. *kalifato* 1977) [...].

Honela, *kalifa*, *kalifaldia* (kalifa baten aginte garaia eta kalifen agintaldiak izan zirenekoa), *kalifatza* (kargua eta kalifen menpeko aldia), kaliferria (kalifaren agintearen menpeko lurra) eta *kalifazgoa* (?) (kalifa izaeraren ezaugarria eta boterea) ditugu.

Ez dut jarraituko bide honetatik, Iban Zalduek ere jorratu baitzuen Historialari Euskaldunen I. Topaketetan.

Baina, esan bezala, zalantzak zalantza, lana egin da eta egiten ari da erakundeetatik, eta aurretiaz aipatutako saioak ikusiko ditugu pixkanaka.

UZEIren lana eskerga izan da, hasi 1979ko Historia hiztegiaren proiektutik (UZEI 1979), azkenean historia hiztegi batean gauzatu ez zena. Baina EUSKALTERMEN⁹ lan erraldoian termino historiko asko bila daitezke Politika eta Ekonomia Hiztegietatik hartutako lanetatik (aurreproiektuan zioen moduan) eta bestela sartu direnetatik. Ez naiz honetan luzatuko bere arduradunetako batek aurkeztu baitu lehenago, eta nik haren erabilgarritasuna baino ezin dut aipatu.

Elhuyarrek ere lan egin du arautu nahian, bai Munduko Geografia izenen inguruan (Elhuyar 1991) bai Pertsona izenen inguruan (Elhuyar 1992) onomastikako kontuetan, hain zuzen¹⁰; eta bere gaztelania/euskara hiztegian ere (Elhuyar 2000).

Hor dago, bestalde, aurrez aipatu dudan moduan, EHUko irakasleek egindako lana (hots, neure aurrekoek) eta, badirudi, Euskara Institutua ere lanean hasi dela terminologia lantzen eta, bekadun talde baten bidez, Historiako terminologia lantzen hasi direla, hain

⁸ Forma bera dakar 2002an berritura atera duten bertsoan ere.

⁹ http://www1.euskadi.net/euskalterm/indice2_e.htm

¹⁰ Aurrerago ikusiko duzu zehatz-mehatz.

zuzen ere, Arabako Campusean.

Eta azkenik era isilagoan UEUK era praktikoan (bere liburuen zuzenketa bidez) eta, azken aldian, Historia Sailean sortu duen Terminologia Batzorde baten bidez (zeinen kide neu ere banaizen), Onomastikaren inguruan lanean hasi da.

2. ONOMASTIKAREN ARAZOAK ETA ERREGE-ERREGINEN IZENEI BURUZ DAUDEN PROPOSAMENAK

Onomastikak euskaraz arazo propioak dauka, terminologiaren arazoaren barruan, batzuk terminologiarekin bat egiten dutenak orohar, eta berari arlo bereizi moduan dagozkionak beste batzuk. Ezin dugu bazter utzi, onomastika bera are bihurriagoa dela eta arazo gehiago dituela, terminologiako arazo “arruntez” gain.

Egia da hainbat aldiz aipatu direla errege-erreginen izenak, eta, beraz, landuak izan direla esan genezake.

Batetik pertsona izen “arruntek” dituzten arazo asko ez dituzte (edo, hobeto, beste batzuk dituzte). Hots, izen historikoek dituzten arazoak laburbilduz hauek dira: ikerketak orohar gehiegi ez diren arren, izen eta abizenen jatorri etnografiko-linguistikoaz arduratu dira batik bat hizkuntzalari eta historialariak; hots, deitura edo abizen hori jatorri euskalduneko zen, latindar estratukoa, frankoa, okzitanoa, judua... Edo esanahiaren arabera sailkatzeaz arduratu dira (adibidez, deituretan pertsona izen batetik datozen, ezizen batetik, lanbide batetik, gehien jota, toponimo batean jatorria ote duen...). Eta, azken aldian, eta gure hizkuntza paper ofizialetan agertzearen ondorioz, edo, nahi bada, hizkuntza normalizazio baterantz, izen-abizenen idazkera zuzena bilatu da —hor Euskaltzaindiaren izendegiak (Gorrotxategi 2001; EDI 1998)—, ortografiaz arduratuz, batik bat. Horretarako zegoen dokumentazio historikoa erabiltzen ere saiatu delarik, besteak beste.

Lan hauen garrantzia aipatzeko beharrik egon gabe, hala ere, lan asko dago egiteko abizen historiko hauek euskaraz nola idatzi behar diren agertzean¹¹, oso gutxi baitira izen horiek gaur egun egiten ditugun lanetan euskaraz nola idatzi behar diren esaten edo proposatzen digutenak. Bai ikerketa lan historikoak egitean, bai testuinguru teknikoagoetan, adibidez, biblioteca bateko katalogoko sarrera nagusiak sortzean, arazoak sortzen dira pertsonaia historikoen izenak idazteko. Hego Euskal Herriko artxibo-dokumentazioa gaztelaniaz dago eta bibliografia gehiena ere. Badirudi gaztelaniazko formak finkatuta daudela, baina,

¹¹ Ikus horretarako, Mikel Gorrotxategik egindako sarreraren: “Izendegi hau gauzatzeko erabilitako irizpideak” (EDI 1998).

gure ustez, euskaraz ere formak finkatu beharra dago. Eredu estandar eta normalizatu bat aurkezteko balio dezaketen parametroak ezartzea da, izenen historia aztertuz eta dokumentazioan agertzen diren forma ezberdinak ikusiz eta baloratuz. Tresna baliagarria izango da hori historiazko euskal testuak sortzeko, liburutegi bateko katalogoak egiteko orduan, non egileen izen pertsonalak agertzeko modua oso zorrozki dagoen arautua.

Horra, Irati Iciar eta biok egindako proposamena era labur batean azalduta, izen historikoak idaztean (bai lan historikoetarako, bai katalogazio lanetarako)¹², lehen izen propioaren eta deitura patronimikoaren ondoren datorren deitura idazteko: XVI. mende bukaerara arte izen historikoei leku-izeneko deiturari “-koa” atzizkia gehitzea gomendatzen dugu —mikrotoponimo bati loturik egotean— eta handik aurrerakoei ezer ez jartzea, familiari lotu zaiolako deitura, betiere kasuak kasu eta salbuespenak salbuespen. Beraz, proposamen honetan oinarri gintezke errege-erreginen “deiturei” erreferentzia egiteko ere.

Izen eta deitura orokorre dagozkien arazoak dira hauek, baina arazoa konplexuagoa da errege-erreginen onomastikaren kasuan, eta proposamen honek ere bere akatsak ditu, onomastika berezia baitute errege-erreginek.

Batetik, normalean ponte izena baino ez dute, eta oso gutxitan daukate deiturarik (ez bada patronimikoa, Iruñeako Goi Erdi Aroko lehen erregeetan ikusten denez: Antso Gartzeiz, Gartzia Ramirez...). Besteek dinastiaren izena eraman ohi dute, baina gehienetan, XIX. mendeko historialariek eta historiografiak *a posteriori* ipinitako dinastia izenak izan ohi dira, nolabait izendatzeko eta sistematizatzeko, pertsona denek bezala abizena izan zezaten (iraultza liberalen ondorioz sortutako berdintasunaren eraginez). Berdin gertatzen da, jakina, gehitzen diegun zenbaki ordinalarekin, geuk historialariok gehitua da bereizteko, ez jatorrizko iturrietan agertzen delako, eta ez benetan orduan horrela deitzen zitzaielako. Dinastiaren izenari, izengoitiari edo hurrenkerari dagokionez, beraz, izen bereko errege-erregina desberdinak bereizteko erabili ohi dira historiografian —nahiz eta batzuk hala izan haien garaiko kroniketan ere, nahiz eta ez erabili haien dokumentazio ofizialean, aurrerago ikusiko dugunez¹³—. Horrela, adibidez, *Margarita Valois-ekoa* (aipatu gabe *-koa* ala *-ekoa* izan behar den bere deklinabidea idaztean!) edo *Margarita Valois* zeinetan nolabaiteko deitura gehitzen zaion, benetako abizena baino, dinastiaren

¹² Euskaltzaindiko XV. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako komunikazioa eta aktetan argitaratuko dena: Agirre, J. eta Iciar I. (argitaratzeaz) “Pertsona izen historikoen azterketan oinarritutako euskal forma onomastiko baten proposamena”, Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarraren aktak. Euskalgintza XXI. mendeari buruz: Azkue, Uxxixo eta Lafitte-ren omenez, *Euskera* aldizkarian. Beti ere, beste proposamen batzuekin kontrastagarria dena eta kritika beharrean dena.

¹³ Salbuespenik ere bada, Laguardiako Andre Mariaren errege elizan, sortzaitzat agertzen da Antso II.a Gartzeiz Abarka, eta bere irudiaren azpian abarka bat dauka, bere ezaugarri eta bereizgarri.

izena dena, bera izendatzeko.

Arazo hori ez da soilik euskararena; hona hemen beste batzuen iritzia Poloniako historia egitean:

Por lo tanto, hemos renunciado a ser coherentes a la hora de mencionar nombres: somos conscientes de que eso solo [*sic.*] nos hubiera conducido a absurdos históricos; de modo que, en ocasiones, hemos obviado la cuestión. [...] Los lectores deben considerarse con plena libertad para debatir entre ellos cuál deberíamos haber utilizado. De una forma esperemos que menos conflictiva, hemos decidido mantener algunas formas ya acuñadas de los nombres propios polacos (como Juan Casimiro en vez de Jan Kazimierz) y prescindir de otras en favor del polaco (Boleslaw, Wladyslaw o Stanislaw más que Boleslao, Ladislao o Stanislao). (Lukowski eta Zawadzki 2002: 12-13)¹⁴.

Tradizioan daukagun paradigma da Joanes Leizarraga (1990), zeinek bere *Testament Berriaren* atarian euskaraz horrela dakarren idatzita:

Gvcizco Andre Noble / Ioanna Albrete Naffarroaco Reguina, / Bearnoco Andre guehién etc., denari, be_/re cerbitzari gucizco chipiac eta gucizco / obedientac, Ioannes Leizarraga Beras_/coizcoac, Iesus Christen gratiá eta ba_/quea desiratzen.

Leizarraga eredua da ala salbuespena?¹⁵ Gainera, forma bat hartu beharra dugu sistematikoak izateko, baina horrek ez du esan nahi forma bakarra izan behar denik, ezta erabili dezakegun forma bakarra ere, testuinguruaren arabera alda baitaiteke formaren egokitasuna ikusiko dugunez.

Azter ditzagun, orain errege-erreginen inguruan egin diren lanak eta proposamenak. Batetik, lehenbiziko eta behin, Euskaltzaindiak bere 76. arauan izen klasikoen inguruan hartutako erabakiak daude. Bertan Antzinateko errege-erregina batzuen izenak datoz eta erabakirik (*Agamemnon*, adibidez).

¹⁴ Egileak bi historialari poloniar dira, baina (itxura guztien arabera) jatorrizko testua ingelesez idatzi dute, *Cambridge University Pressen* argitaratzeko, hots, nazioarteko publiko bati zuzenduz, eta ez poloniar arruntei. Aipuan dagoena jatorrizko ingelesezko testuaren gaztelaniazko itzulpena da, alegia, ez dakigu zehatz-mehatz egileek ingeles testu baterako hautatu dituzten formak... baina beren arazoak, horiek bai, oso-oso gertukoak dira historialari euskaldunentzat. Eta egiten duten kontsiderazioa ere guztiz baliagarria guretzat.

¹⁵ Bada abesti tradizional bat ere, guztiok ezagutzen duguna, «Errege Don Filipe-n alaba lindia» bertsoa daukana.

Aipatu den Elhuyarren pertsona-izenen liburuan (Elhuyar 1992) esaten da, haien helburua dela atzerriko izenak nola eman aztertzea, ez Euskal Herrikoak¹⁶), ezta erdal izenetan zalantzarik sortzen ez dituztenak ere (*Federico García Lorca*, aipatzen zaigu adibide). Erdal grafiatan gauza “eginagoa” dagoen arren (beste grafia batzuetako izenak gorabehera), euskaraz erlijio gaietan izan dela finkatze bakarra agertzen dute (gaur egun, ponte izen eta deituren izendegiak ere baditu Euskaltzaindiak, ikusi dugunez).

Aurrez egin diren proposamenetan, Xabier Kintanaren *Euskal Hiztegi Modernoan* zetorren izen zerrenda eta UZEIk argitaratutako *Mendez mende, Filosofia eta Artearen Historia* sailekoak dira ahaleginik aipagarrienak, Elhuyarrek dioenez.

Alfabeto desberdinek sor ditzaketen arazoak utzita (lan oso interesgarria dakarte, hots, beste alfabetoetatik latindarrera euskaraz egin beharreko transliterazioak nola egin azalduz, nahi duenak ikus beza haien lana eta gerora Euskaltzaindiaren erabakia izen klasikoiei buruz) edo *Avicena* edo *Mahoma* bezalako kasuek sortutakoak, guri dagokigun gaiari heltzen diote Elhuyarrekoek.

Izen propio batzuk historian zehar “etxekotu” egin direla esaten dute; adibidez, *Mikolaj Kopernik* zenaren izena, latinez lanak argitaratzean *Nicolaus Copernicus* bihurtzen zenez, gero hizkuntza erromantzeek beraien formetan ematen zutena: frantsesez *Nicolas Copernique* edo gaztelaniaz *Nicolás Copérnico* (beraz, euskaraz *Nikolas Koperniko* beharko luke arau honen arabera). Elhuyarrekoek zuhurki esaten digute guri dagozkigun izen hauek euskarara egokitu nahia datorrela inguruko erdarek ere hala egiten dutelako. Izen mota asko egonik, arauak ematea zaila dela azpimarratzen dute, eta, askotan, erdal hizkuntza horietan finkatu dena arauz baino erabileraz, tradizio literarioz, izan dela.

“Etxekotzearen” beste adibide paradigmaticoa errege-erregina eta aita santuena dugu, jatorrizko izena zein den begiratu gabe egin ohi dena. Hauei euskaraz jatorrizkoa ipiniz gero, izen berdintsua zuten erregeei, bariante ugari sortuko litzaizkioke euskaraz, erdaldunen forma bakarraren aurrean: Alemaniako erregeak *Wilhelm*, Ingalaterrakoak *William*, Espainiarrak *Guillermo*. Aldiz, gaztelaniaz denak dira *Guillermo* eta ingelesez denak *William*. Bazter utzi ditzagun jatorrizkoa hartzeak dituen abantailak eta desabantailak, eta, beraz, bi aukera ditugu: jatorrizko hizkuntzan jarri edo egokitu behar bada, zein egokitu eta zein ez ikusteko, beste hizkuntzetan zein egokitu den eta zein ez ikusi beharko genuke.

¹⁶ Esan dezadan, nire azterketan Euskal Herrian izan diren errege-erreginenak ere interesatzen zaizkidala, jakina.

Honela, azkenik Elhuyarrekoen arabera erabili beharreko irizpideak hauexek dira: hizkuntza gehienetan etxekotu egiten denez izena, euskaraz ere horrela beharko genuke, “bataio-izenen euskarazko formen zerrenda” erabiliz tresna gisa (Elhuyar 1992: 49). Arazoa ez zen ez dugula tradizioz, baizik eta bi ditugula: iparraldekoa eta hegoaldekoa (bazter utzita sabiniarra); eta hautatu egin beharra dagoela (arazo hau, ez beti, baina saihestua edo behintzat erabakia dela esan genezake Euskaltzaindiak ateratako ponte-izenen zerrendarekin¹⁷).

Baina zer gertatzen zen izen ez hain erabiletan? Grafia euskaratzera jo ohi da (nahikoa zen pertsonaia ezagun batek hala egina zuela jakitea egiteko: adibidez *Eujenio*), baina beste batzuk ez dira hain ezagunak (zer egin *Vitalekin*?), edo aldaketa oso nabariak direnean *Ingalaterrako Bitori erregina* adibidea ez dela egokiegia deritzote argitasun handiz. Honela, salbuespenekin euskal grafia aplikatu dute hasierako R- errespetatuz (Erramunen kasuan izan ezik), eta salbuespenak eginaz: *Viktor* eta *Viktoria* edo *Hanibal Kartagokoa* eta *Helena Greziakoa* (beste *Anibal* eta *Elenak* desberdin agertu arren), gaur egungo izenak eta historikoak bereiziz (berdin *Hasdrubal*, *Hamilkar*...). Grafiarekin jarraituz, izen germanikoetan, “g” letrak “j” bihurtu zituzten, kontsonantez bukatutako izenetan “o” letra onartu (*Alfred*, *Alfredo*) eta jatorrizko “w” eta “v” letrak mantendu zituzten; kasu berezietan, zeintzuk asko aldatzen diren inguruko hizkuntzetan, jatorrizkoa (*Clovis*, *Clovis* eta *Clodoveo* artean) eta aukeratutakoa, jatorrizkoa zein den garbi ez dagonean (*Eduvijis*, *Eadgifu*, *Edwige*, *Eduvigis* artean). Beste hizkuntzetan grafiak errespetatuz egin zuten zerrenda. Erdi Aroko izenetan, latinetik datozenetan euskal bataio-izen arruntak edo ez badira latinetik euskarara egokituak (*Erasmus*, *Aldo Manuzio*; baina *Nikolas Koperniko*); jatorrizkoaren desberdina bada ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz, eta latinez ez badago, etxekotu egin zuten (*Magallaes* euskaraz, frantsesez eta ingelesez *Magellan*, gaztelaniaz *Magallanes*, jatorriz *Magalhães* denean¹⁸); hizkuntza batean baino ez denean asimilatu, jatorrizkoa laga zuten (*Alessandro Farnese* ingelesez, *Alexandre Farnèse* frantsesez, *Alejandro Farnesio* gaztelaniaz, *Alessandro Farnese* euskaraz), eta

¹⁷ Elhuyarrekoek honen faltan Arantzazuko Andre Mariaren egutegian datorren eta Eliz-barrutien lana erabili zuten, UZEIkoek bezalatsu.

¹⁸ Kasu hau bera aipatzen da eta antzeko arazoekin gaztelaniaz *Vasco de Gama* izeneko biografia batean (jatorrizko ingelesean *Vasco da Gama*): bertan transliterazio oharrak izeneko atal batean zera dio liburuaren egileak (indiarra bera): "Los nombres de lugares y personas portugueses siguen el uso moderno en Portugal, pero en las citas se ha conservado por lo usual la ortografía original, y si hace falta se incluye la forma moderna entre corchetes. Para las palabras indias y arabopérsicas se ha adoptado una versión simplificada del sistema de transliteración de uso común (el Steingass-Platts) por los historiadores del sur de Asia. Cuando esas palabras salen en cursiva se marcan las vocales largas y ciertas consonantes especiales, pero en los demás casos esto no se hace. En cuanto a los nombres de los autores que aparecen en la bibliografía, si son portugueses, se les coloca conforme a su segundo apellido, es decir, Godinho y no Magalhaes Godinho, Thomas y no Reis Thomaz. En el caso de algunos escritores indios, por ejemplo Krishna Ayyar, se ha hecho un excepción. [En esta edición española (*jatorrizkoa ingelesez baitago*), se ha optado, como es tradición en la historiografía en castellano, por traducir los nombres de los reyes y de algunos personajes que, por ser muy conocidos, suelen citarse en castellano, como el mismo Vasco de Gama y sus familiares, Fernando de Magallanes o la casa de Braganza. En el resto de los casos, se han respetado los nombres orginilaes en portugués. (*N. del e.*)] (Subrahmanyam 1998)".

salbuespena oso ezagunak direnetan egin zuten (*John Calvin* ingelesez, *Jean Calvin/Cauvin* frantsesez, *Juan Calvino* gaztelaniaz, euskaraz *Joanes Kalbin*; *Miguel Anjel...*).

Hori izenari dagokionez, baina, errege-erreginez gain, santu eta bestelako pertsonaiekin ere egin ohi da bere jatorrizko lekuaren izena gehitzea. Lekuzko ezaugarri hau kentzea gomendatzen zuten, salbuespenetan izan ezik —gure iritzia desberdina da—, adibidez, *Luis II.a Borboikoa (Habsburg...)*. Hala ere, familia izenekin (dinastiekin eta) izenekin erabilitako irizpide berdinak erabili zituzten euskaratzeko (*Estuardo...*) edo jatorrizkoan jartzeko (*Medici, Fieschi...*). Ez naiz sartuko deklinabide kontuetan...

Ezizenen edo izengoitien kasuan itzuli egiten zituzten euskarara, izenaren ondoren aposizio gisa jarriz ordinala gehitzean izenaren eta izengoitiaren tartean (*Alfontso X.a Jakituna*); izenaren osagarri direnean izengoitiak (adjektiboak bezala) mugatuan ematea proposatzen zuten (*Rikardo I.a Lehoibihotza*) eta soilik izenaren ordezkotasuna har dezaketenean mugagabea (*Eduardo, Printze Beltza*). Hauetan arazoa da zein den aukeratzeko den hitza euskarazko baliokide sinonimoen artean (jakintsua, jakituna... ‘sabio’ esateko). Bestetik, idaztean letra biribilez jartzea proposatzen zuten eta inolako adierazgarririk gabe (*Karlos I.a Burusoila*), baina agian kakotzak edo etzana beharko ote dituzte? Baina badira grafia egokitzen zaizkienak ere, soilik hizkuntza guztietan, ezizenak berak duen informazioa gehigarri gisa azalduz ondoren pertsonaiak hitz egitean, adibidez: Portugalgo Enrique I.a *Poliorketes* deitua zen, hots “hiri-konkistatzailea”, *Artaxerxes I.a Longimano* (“Eskuluzea”) edo *Demetrio I.a Soter* (“Salbatzailea”).

Bada, orohar, beste hizkuntzen joerak jarraitzen dira.

Izendegia osatzeko erabilitako irizpideetan ohar interesgarriak eginda daude:

Alberto I.a zein *Alberto IX.a*, pertsonaia historiko desberdinak izanda ere, eskuartean darabilgun arazoari dagokionez arazo bakarra erakusten dute: *Alberto* (Elhuyar 1992: 76)¹⁹.

Kasu batzuetan bi izen ere jarri zituzten, lehena ezagunena zelarik (*Ferenc Rakoczi* / *Frantzisko II.a*)

Lur Hiztegi Entziklopedikoan (Lur 1998) ez zen sistematizazio lan esplizitu bat egin, baina erabileran ikusten da Elhuyarren lanaren ildotik doala. Honela, Euskal Herriko

¹⁹ Etzanak jatorrizko testuan zeuden.

historiari buruzko liburukian Iruñeko erresumako errege-erreginei egindako zuhaitz genealogikoari dagokienez, adibide hauek har genitzake (Lur 1998: 104):

- (2a) Antso Gartzeiz I.a²⁰
- (2b) Toda Aznarez²¹
- (2c) Gartzea Santxez
- (2d) Ordoño II.a Leongoa
- (2e) Antso III.a “Handia”

Historia Unibertsaleko liburukian, berriz, Gurutzadez ari denean (Lur 1998: 141), beste adibide hauek ikusten dira:

- (3a) Federiko I.a *Bizar Gorri*
- (3b) Rikardo I.a *Lehoi Bihotz*
- (3c) Felipe II.a *Augusto*

Eta, liburuki beraren Europako monarkien atalean agertzen den kronologia batean (Lur 1998: 203), beste hauek:

- (4a) Kristian I.a Danimarkakoa
- (4b) Napoliko Ferrante I.a
- (4c) Ivan III.a “Errusia guztien Printzea”
- (4d) Henrike VII.a Tudor

Eta Gaztelako XIV. mendeko gerra zibilaz ari denean *Pedro I. Ankerra*²² izendatzen da.

Beraz, badirudi zenbaki ordinala izenaren ostean jartzen dela; deitura patronimikoa baldin badago, izenaren eta patronimikoaren ondoren jarri diote hurrenkera zenbakia, Erdi Aroko aldi zaharretan izena bezala errepikatu egiten denez patronimikoa (aitonak eta bilobak izen-deitura berak izanez). Esan behar dut soluzio hau ez dela zuzena, Antso I.a Gartzeiz eta Antso Gartzeiz I.a ez baita berbera, Antso hurrenkera zuten denak ez zirelako Gartzeiz, eta izenari dagokion hurrenkera da erabiliena, beraz, ponte izenaren ostean joan beharko litzateke; izan ere, badira adibideak abizenari hurrenkera ere gehitzen diotenak. Hau da, *Gran Larousse Universalek* (1995) dakarren formula, *García I Iñiguez* da, baina *García II Sánchez I* eta *García Sanchez II*, honek esan nahi du García I, II eta III egon

²⁰Hala ere, *Santxo* dator izendaturik Hiztegi Entziklopedikoko sarrera gisa.

²¹Aurrekoaren ezkontidea zena.

²²Lur Hiztegi Entziklopedikoan eta Klaudio Harluxet-en *Euskal Hiztegi Entziklopedikoan* ere berdin dator sarrera gisa.

zirela hurrenkeran, *García I García Iñiguez* zen, baina *García II.a García Sanchez I.a* zela berez, eta *García Sánchez II.a*, azken hau *García III.a*). Izengoitia markatu egiten da kakotzez edo letra etzanez. Gainera, dinastiaren izena gehitzen da kasu batzuetan markarik gabe. Azkenik, nongo erregea den adieraztean, “Urli lekuko erregea” formula erabiltzen da, edo “Urliakoa” ondoren jarrita, edo “Urliako + izena” formula.

Harluxet-en *Euskal Hiztegi Entziklopedikoan* (1995: 2374-2375) “Nafarroa” atalean datozen errege-erreginen izenen artean hautaketa bat eginaz:

- (5a) Gartzia I. Santxez
- (5b) Antso III.a Gartzes Nagusia
- (5c) Fernando I.a Gaztela eta Leongo erregea
- (5d) Teobaldo III.a Champagnekoa
- (5e) Antso VII.a Azkarra
- (5f) Blanka
- (5g) Karlos IV.a Bianako Printzea

Euskal Herriko testu liburuetan ere erabili dira eta jasotzen dira forma desberdinak, baina ez ditut hemen aztertuko ez luzatzeko gehiago.

Azkenik, bada Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren proposamena katalogazioak egiteko, onespén zain. Jakina, hau biblioteka batean erabiltzekoa da, baina guri ere baliagarria zaiguna.

Euskaltzaindiko Bibliotekan erabili behar duten katalogazio 21. arauak dioenez²³, bi dira arazo nagusienak errege-erreginen izenak euskaraz nola eman erabakitzeke orduan: batetik, katalogatzeko arau ezberdinak erabiltzen dira nazioartean (hizkuntzaren edo estatuaren arabera), eta, bestetik, katalogo desberdinek dituzten salbuespenak eta kasu bereziak ugariak dira —Azkue Bibliotekako katalogazio-erregelak esaten ez diguna da salbuespen horiek errepikatu egiten diren katalogoetan ala araudi bakoitzean desberdinak diren; beste era batean esanda, *Urli*, *Sendia*... beti diren salbuespena (Frantzian nahiz Ingalaterrako liburutegien katalogoetan...), ala benetan salbuespen ugariak diren kopuruz gain *kalitatez* ere, hots Ingalaterran *Urli* eta *Sendia*, Frantzia Berendia eta Harandia...—. Honela, bi joera daude katalogazioak egitean: batetik, angloamerikarra deitzen duena, zeinetan ingeles forma ematen zaien izenei, baldin eta ingelesez ondo errotutako formak

²³ Azkue Bibliotekako zuzendariak eskuz esku emandako txostena, oraindik Azkue Biblioteka batzarraren onspénaren zain dena (2002ko iraila).

badira (azpimarratu dezagun hau)²⁴. Aldi berean, Espainiako Kultura Ministerioaren Arauetan Espainiako hizkuntzetan jasoko dira: santuak, beatoak, aita santuak, enperadoreak, errege-erreginak, printze subiranoak eta baita izen klasiko greko eta latinoak (guztiak berdin, arau beraren arabera); gainera hizkuntzetan diot, zeren horrela dator zehazturik, hau da, Espainiar estatuko edozein hizkuntza ofizialetan²⁵. Bestetik, Frantziako arauetan, aldiz, subiranoak dagozkion herrialdeko hizkuntzan aipatu behar dira eta soilik frantsesa erabil daiteke egokiagoa iruditzen bada, baina betiere, jatorrizko formara zuzenduz, eta, ez hori bakarrik, leku desberdinetako subiranoak zirenean, leku bietako hizkuntzetan agertu behar da, bakoitzean bere ezaugarriekin²⁶.

Beraz, desberdinak ez ezik, kontrajarriak ere badirela nazioarteko arauak diosku Azkue Bibliotekako erregelak. Hori dela eta, azkenean haiek hartutako erabakia honako hau da:

Hau da arau orokorra: munduan zehar gehien zabaldu den ohiturari segituz, printze subiranoen sarrera nagusiak euskaraz idatziko dira, jatorrizko formak bigarren sarrera gisa paratuz. Kasu guztietan forma modernoak erabiliko dira, hots, gaur eguneko iturri historiografikoetan arrunki erabiltzen direnak, eta ez jatorrizko forma zaharkituak. Dena dela, kasu berezien ugaritasuna kontuan izanik eta nazioarteko araudietan dagoen irizpide bikoiztasuna gogoan hartuz, Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko ditu izenak, banan-banan, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatuz²⁷.

²⁴ Hitzez hitz honela dator Arau Angloamerikarrean: "(AACR2r): 22-3B. Names written in the roman alphabet and established in an English form. Choose the English form of name for a person entered under given name, etc. (see 22.8) or for a Roman of classical times (see 22.9A) whose name has become well established in a English form in English-language reference sources.

[...] Charles V *not* Karl V, Carlos I
King Philip II *not* Rey Felipe II [...]".

²⁵ Hitzez hitz honela dator Espainiako Kultura Ministerioaren Arauetan:

"15.1. B f) Variaciones lingüísticas:

4. Se escogerá la forma española (1) para los santos, beatos, papas, emperadores, reyes, príncipes reinantes, así como en el caso de clásicos griegos y latinos.

[...] Luis XV y *no* Louis XV
Guillermo II y *no* Wilhelm II [...]

[Oharra] (1) Las expresiones "en español" o "forma española" aplicadas a la lengua, se refieren a cualquiera de las lenguas oficiales habladas en España".

²⁶ Hitzez hitz honela dator Frantziako Arauetan (NF Z 44-061, Juin 1986):

1.2.2.7. Souverains

On choisit le nom de règne dans la langue du territoire concerné. Cependant, la forme française peut être employée dans les catalogues où elle serait plus appropriée. On fait un renvoi de la forme non retenue vers la forme vedette.

Exemples: Felipe 2 renvoi de: Philippe 2

Le cas des souverains ayant régné successivement ou simultanément dans plusieurs pays peut donner lieu à plusieurs vedettes reliées par des renvois d'orientation.

Henri 3 (roi de France) *voir aussi:* Henryk Walezki 1 (roi de Pologne)

²⁷ 22. oharrean aipatutako txostena.

Araua horrela hartzeko arrazoiak ere ematen ditu. Batetik, hurbilen ditugun errege-erregina subiranoen kasuan, eta aldi berean aldaki gehien dituen, Nafarroako errege-erreginak testuetan aipatzen den hizkuntzan adierazi ohi dira gaur egungo lan espezializatu gehienetan: hots, euskarazkoetan euskaraz, gaztelaniazkoetan gaztelaniaz eta frantsesetan frantsesez; arauak dakarren adibidea hau da:

(6a) 1. Sancho, Sanche eta Antso

(6b) 2. Blanca, Blanche eta Zuria (?) azken hau zalantzan samar zeren «euskarazkoetan Zuria (Erdi Aroan usu erabilitako izena) izan beharko lukeela, oraingoz euskal historiografian forma hori hedatu ez bada ere», baina forma modernoa behar bada, zergatik Erdi Aroa begiratu? tradizioa begiratu behar delako, alegia, horrek ez du esan nahi estu-estuan jarraitu behar denik edo grafia zaharra erabili behar denik (*Çuria* edo)²⁸.

Aldiz, beste lekuetako errege-erreginen kasuan ez dira euskal testuetan euskaraz erabiltzen bereziki Azkue Bibliotekako arautegiak dioskun moduan, «ez tradiziozko testuetan ezta ere gaur egunekoetan», onomastikako arazo ugari baitaude oraindik erabaki gabe euskara normalizatuan. Hala ere, izen berezien kasuan:

Arazoak arazo, Euskaltzaindiaren joera izen horien euskal forma estandar bat arautzea izan da, eta horrela egin du santutegiko izen ohikoekin (66. araua), latin eta greziar pertsona-izen klasikoekin (76. araua) eta Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoekin (82. araua); joera horren ondorioz badirudi zentzuzkoa dela errege-erreginentzat ere ildo beretik segitzea.

Bestelako arazoak ere azaltzen ditu aipatzen ari garen katalogazio-erregelak. Erresuma desberdinetako errege-erregina ziren/diren errege-erreginen kasuan —ohikoa Erdi Aroan eta Aro Berrian—, adibidez, Aragoiko errege-erreginak (XI-XII. mendeetan²⁹) eta Frantziako errege-erreginak (1284-1328 urteetan³⁰) Nafarroako errege-erreginak izan ziren eta Nafarroako errege-erreginak Frantziako errege-erreginak izan ziren (1594tik).

²⁸ Garbi dagoena da, erabili ezin dena Zuriñe sabiniarra dela; beharbada Blanka.

²⁹ 1076-1134 artean hain zuzen ere, Antso Ramirez, Petri I.a Aragoikoa eta Alfonso I.a *El Batallador* (*Gudularia, Borrokalaria*) Aragoiko errege izan zirenak eta Iruñeko erreinuaren jabe egin zirenak.

³⁰ Praktikan erregentziaz 1276tik hala den arren (Felipe Ausarta Felipe Ederraren aitarekin), benetan 1284tik da Felipe Ederra Frantziako erregea izango zena Nafarroako errege, Joana I.aren ezkondu ostean. Ondoren haren semeak jarraituko du Luis Hutin deituak Nafarroa eta Frantziako erregea zenak (data desberdinetan hori bai, 1305etik Nafarroakoa, hots, ama hil zenetik, eta 1314tik Frantziakoa, hots, aita hil zitzaionetik); gero hildako infante baten ostean Juan izenekoa, Felipe el Largo eta Carlos el Calvo datoz Luis Hutinen anaiak zirenak eta ondoren Joana II.a Luis Hutin beraren alaba 1328tik —bere senar Felipe Evreux-koarekin—, orduan bereizten direlarik berriro bi koroak.

Eta berdintsu gertatzen da beste errege batzuekin ere, adibidez:

(7) *Karlos V.a kaiserra* (1500-1558³¹) eta *Karlos I.a Gaztelako eta Aragoiko erregea* (1516-1556) pertsona bera da, *Karlos Habsburg*.

Eta, beraz, izenaren arazoari gehitu behar zaio *hurrenkerarena*, hots, zenbatgarren izen horretako errege ala erregina den erresuma bakoitzean, adibidez:

(8) *Luis I.a Nafarroakoa* eta *Louis X.a Frantziakoa*, hurrenez hurren.

Hauen kasuan, erresuma bakoitzeko izen bat hartzeko joerak arazoak sortzen ditu eta araudiak dioenez “Irtenbide hori egokia izan daiteke munduko hainbat biblioteka handirentzat, baina ez dirudi oso zentzuzkoa Euskal Herrirako”.

Araudiak gehitzen ditu, alfabeto ez-latinoan dauden izenak euskal forman eman behar direla (egokiena dela, alegia), euskaldunentzat «guztiz arrotzak» baitira. Adibidez:

(9) Errusiako Tsarra Petri izango da, eta ez Pedro edo Pierre; ezta Pyotr edo Petr ere (alfabeto zirilikoaren transkribaketaren bi aukerak)

Gainera salbuespenak eta kasu bereziak ere kontuan hartu behar direla esaten digu araudi honek, ezinbestekoa dena, nahiz eta batzuetan salbuespenak araua baino ugariagoak izatera irits daitezkeen. Adibidez:

(10a) Aliénor Akitaniakoaren kasuan izen hori hautatu da bere izena oso forma desberdinetan aurkitzen delako gaurko iturri historiografikoetan (Aliénor, Eleanor, Eleonor, Eléonore, Eleonore, Leonor...), hizkuntza berekoetan ere, ziur aski arrazoi historiko oso partikularrengatik; hori dela eta forma historiko bereziena hautatu da, pertsonaiaren bakantasunak horretarako aukera eskaintzen duelakoan: ez da serie batean errepikatzen den izena (I.a, II.a., III.a., eta abar). Haren alaba, aldiz, Gaztelako Alfonso VIII. arekin ezkondu zena, Leonor edo Lonore Akitaniakoa izango litzateke.

(10b) Alexandro Handia³²

(10c) Karlomagno (forma hau da onartuena dagoeneko; hala ere, egin izan dira itzulpenak, Karlaundi-ren erakoak, edo agian ikusi dudak egokienetakoa

³¹ Bizitzako urteak.

³² Eta nola jarri tsarra orduan? Alexander Handia?

“Karlos Gurena” (Watson 1969: 74), alegia, Karlos Gorena).

Baina arazoa berdina da printzipioz adibideen zerrenda ez bada ikusten: hots, zeintzuk diren arauak aipatzen dituen “Kasu guztietan forma modernoak erabiliko dira, hots, gaur eguneko iturri historiografikoetan arrunki erabiltzen direnak, eta ez jatorrizko forma zaharkituak”. Logikoa deritzot forma modernoak erabiltzeari, ez baikaude benetako formen bila, geuretzat erabilgarri izango zaizkigun formen bila baizik, gorago esana dugunez. Eta gainera, bertan planteaturik geratu da hurrenkeraren arazoa eta *abizenena*, hots, ezagutzeko jartzen zaizkien beste gehigarriena: subirano diren erresumaren izena dela, bere familiaren eta leinuaren izena dela (aipatu behar direnak, baina gauza desberdinak izanik irizpide desberdinak aplikatu behar zaizkio). Adibidea:

(11a) Borbon, Valois, Habsburg

(11b) Gaztelakoa, Frantziakoa

Izengoitiei dagokienez, itzultzean egon daitezkeen zailtasunez gain (lehen aipatu ditugunak), badira izengoiti bikoitza dutenak (tradizio desberdinengatik, bere aldeko nahiz kontrakoengatik... *Pedro I el Cruel* edo *el Justiciero*, adibidez)

Beste arazo bat izango da, izendatzean alboan jarri ohi diren datak erreinaldikoak izan behar diren ala bizitzakoak, normalean erreinaldikoak izan ohi dira historiografian, nolabait pertsonaia publikoak izan ziren garaia da interesgarria dena, ez bada biografia batean; aldiz, katalogoetan bizitza interesatzen zaie gehiago, batez ere idazleak baziren, errege edo erregina ez zirenean ere idatzi zutelako, beharbada. Adibidez, Karlos I.a Gaztelakoa eta V.a Alemaniakoa 1500ean jaio zen eta 1558an zendu, baina 1516an Gaztela eta Leonen errege izatera iritsi zen, bere amona Isabel Katolikoa hil ostean eta Joana bere ama erregina izendatua izan zen arren, hasieran Karlosen aitarekin Felipe Ederra izan zen errege, baina Felipe hiltzean Joana ezgaitzat hartua izanik, lehenengo Fernando Katolikoa izan zen erregente eta gero Fernando hiltzean 1516an Cisneros kardinala Karlosen izenean. Honela, 1517tik edo³³ dokumentuetan bere amaren ondoan ageri da errege bezala, 1555ean bere ama hil zen arte. Orduan bera zen errege bakarra Gaztelan, eta 1556an errenuntzia egin zuen bere seme Felipe II.aren gain. Beraz, bere data biografikoak 1500-1558 diren arren, erresumei eta politikari dagokionez bere agintaldia edo eragina, orohar, 1516 eta 1556 artean mugatzen dela esan genezake.

Guri bai interesatzen zaigu jartzea Karlos I.a eta V.a zela historian zehaztasuna nagusi delako (besterik ez bada Gaztelaz ari garenean Karlos I.a jarri behar dugulako eta

³³ Orduan etorri zen Penintsulara.

Alemaniaz edo Inperioaz ari garenean Karlos V.a zelako). Beraz, balio digu neurri batean Azkue Bibliotekako araudi honek irizpideetarako eta adibide zenbaitetan (Euskaltzaindikoa izanik batez ere), baina ez beti, jakina.

3. ONDORIOAK

Ondorioak argiak dira. Orain arte egindako lanak kontuan hartu behar dira, haien hutsune eta irizpide egokiekin, bideak markatua dirudi, beraz, baina salbuespenekin eta adibide konkretuekin lan egin behar dugunez, tradizio idatzi propioa finkatzen doan heinean finkatuko dira izenak, ez badu erakunde bereziren batek zerrenda horiek egiteko lana hartzen.

Norberak norbere zerrendak egin beharko ditu, norbere beharren arabera, irizpide horiek jarraituz, baina zerrenda osatua eta finkatua da helburua dakigunez. Horretarako eta hori lotzeko lan-talde batek egin beharreko lana da, horrek dakartzan zailtasunekin, bestela proposamen hutsean geratuko baita, eta, hala ere, gero saiatuko beharko gara guztiok berdina aplikatzen (zalantzak zalantza). Arazoa, beraz, informazioa helaraztea ere izango da, eta dagokion izen ona izatea. Jakina, ez dugu pentsatu behar kasu guztiak jaso ahal direnik bat-batean, beste hizkuntzetan ere, askoz lehenago hasi diren arren zerrendak ez baitaude osaturik, leku urrunetako pertsonaiak agertzen diren heinean, eta abar³⁴.

Hala ere, eman dezagun laburbilduz gure proposamena, orain arteko lanak ikusiz. Dauden ereduak jarraitu behar dira. Transliterazio lanetan eta izenen egokitasunean Euskaltzaindiaren arauak eta Elhuyarren lana eredu gisa hartu behar dira zuzenean (zalantzaren bat izan arren), baina ez naiz horretan sartuko. Eta beste kontuetan ere, Elhuyarren eta beste antzeko egitasmoetan egindako lana uztartu behar da Euskaltzaindiaren arauekin.

Historialariontzat datu guztiak dira garrantzitsuak, bada, izen osoak interesatzen zaizkigu, errege edo erreginen izena, zenbatgarrena den (izen bereko bat baino gehiago badaude), izengoitia (baldin badu) edo “abizena” (dinastiarena, baldin eta erabiltzen badute) eta nongo erregea den (testuan aipatzean jarri beharrekoa, ez erresuma zehatz bateko errege-erreginen izen zerrenda edo zuhaitz genealogikoa ematean, ez delako beharrezkoa ebidenteki —gehien jota, beste erresuma bateko errege edo erregina baldin bada aipa daiteke—).

Nahiz eta, jakina, katalogazio zerrendan autoritatea ezartzean, izen bakarra aukeratu behar

³⁴ Pentsa dezagun, besterik ez bada, Amenophis, Amenhotep, Amenofis kasuarekin, faraoi ilara honen IV.a Akenaton, Ajnaton, Akhenaton ere badela deitua bazter utzita (bere erlijioagatik izena aldatu zuenean).

den (ezagunena, esanguratsuen, lekuaren arabera gehien interesatzen zaiguna —adibidez euskal gaiei buruzko liburutegi batean Iruñea eta Nafarroako erresumei dagozkionak Euskaltzaindian egin den bezala— eta ez Gaztelakoari, Aragoikoari edo Frantziakoari), beste adierak eta aldakiak azpisarrera bezala agertuz. Baina historian ari garenean Gaztelako erregea zela Leongoa zela bezain interesgarria eta beharrezkoa zaigu jakitea eta, beraz, bi izenak eta izendapenak agertu beharko dira (erresuma bakoitzean daukan izen berekoen zenbaki ordinala eta, beharbada, izengoiti-edo desberdina), behintzat haietaz ari garenean, ez agian erresuma zehatz bateko historia azaltzeko orduan (baina bai uneren batean). Dena den, betiere, adieraztean ez dago izen osoa aipatu beharrik, behin aurkeztu ondoren pertsonaia (testuaren testuinguruaren arabera, erresuma bakar batez ari bagara, beraz, elementu batzuk edo besteak aipatuko ditugu). Eta, gainera, esan behar da, askotan bestelako karguak ere bazituztela errege-erregina horiek eta zerrenda zehatzak egitean ere kontuan hartzekoak direla (kasu batzuetan, kondea bere konderrian erregea bere erreinuan bezain subirano izan baitzitekeen, eta unitate politiko gisa maila berdintsua izan, konparatu bestela Kataluniako konderriak edo Iruñeko Erresuma Goi Erdi Aroan; nukleo motari dagokionez, izendapenak baino ez ditu bereizten, oso orokorki hitz eginez).

Bestalde, bere bizitzako datak aipatzean ez zaizkigu hainbeste interesatzen jaiotza eta heriotzako datak (biografian soilik), errege-erregina izatera iritsi zenekoa eta utzi zuenekoa baizik (bizitzari dagozkionak soilik bere bizitzaz hitz egiten ari garenean dira aipatzekoak informazio gisa, baina historia politikoaz ari bagara, bere erreinaldia da interesatzen zaiguna batik bat).

Baina nola gauzatzen dugu hau dena praktikan? Badirudi, bi bide baino ez ditugula: izenak euskaraz jarri inguruko hizkuntzek egiten duten legez, edo jatorrizkoa erabili, tradizio gutxikoetan, salbuespenetan edo orokorrean nahi bada. Baina ezin dena da tarteko biderik erabili.

Laburbiltzeko ikus dezagun aztertutakoa adibideen bidez:

(12a) Antso I.a Gartzreiz Iruñekoa edo Iruñeko erregea³⁵

ala

(12b) Iruñeko edo Iruñeko errege Antso I.a Gartzreiz (euskaraz bi formak dira

³⁵ Kasu honetan ez dut hurrenkeraren kokalekuarekin jarraituko, tituluz aipatu behar da, ez dela *erregea* edo bestelako titulurik bakarrik jarri behar, baizik eta izena + titulua minuskulaz (eta nongoa den), Euskaldunon Egunkariaren *Estilo liburuan* (2001: 93) ederki datorren bezala: *Juan Carlos I.a erregea* edo *Juan Carlos I.a Espainiako erregea*. Pena da, izen propioez ari den arren, errege-erreginen izenei buruzko araurik ez dakarrela konparatzeko. Hala ere, interesgarria da ikustea, tituluz bakarrik izendatzean (nominalizatuta) lehenengo estilo liburuan (*Egunkaria* 1995: 115), estatu buruak badira, dena maiuskulaz idazten dela, baina bestelakoei izenarekin jarrita bezala (betiere titulua nongoa den aipaturik), honela: *Ingalaterrako Erregina*, baina *Galesko printzea*.

zuzenak Iruñeko(a) aurretik nahiz atzetik ondo baitago. Hau izango litzateke froma zuzena izan daitekeena titulua eta dagokion erresumaren izena gehitu nahi denean; gainera, hurrenkeraren zenbakia izenari dagokio eta ez deitura patronimikoari)

- (12c) Antso II.a Gartzreiz Abarka (aurreko adibidearen parean eta izengoitiaren kasua gehituta, azken horri letrakera etzanik ez zaio jarri, izengoitia arrunta eta bereizgarria denez, soilik informazio gehigarria ematen duenez, edo berezia bada, desberdinak dituelako izendatzen duenaren arabera etab.)
- (12d) Petri/Peru? I.a *Ankerra* edo *Zuzena* (*Zorrotza?*, euskaratzean ere forma bateratu eta egokia bilatu behar dugu eta guztiok sistematizatua, sinonimoetan galdu gabe; hemen, berriz, etzanez doa izengoitia aldaki desberdinak dituelako)
- (13) Henrike III.a Nafarroakoa eta IV.a Frantziakoa (leku desberdinetan kargua duen erregea izendatzeko)
- (14) Margarita Valois Nafarroa eta Frantziako erregina ezkontidea (bere emaztearen kasuan dinastiaren izena ere badoa, lekuzko markarik gabe, erreinuari jartzen zaiona)
- (15) Joana Albret (hau da paradigmak ematen digun adibidea)
- (16) Henrike Valois, Anjou-koa edo Anjou-ko dukea (Valois dinastiakoa eta Anjou-ko dukea zelako) eta Henrike III.a Frantziakoa (kasu honetan, aurreko bi kasuak nahasten dira, dinastia izena eta bere kargua, denborarekin duke izatetik errege izatera pasa zena, hurrenkera ere jarri behar zaiolarik)
- (17) Karlos Vianako Printzea edo Carlos Vianakoa (kasu bera, baina adibide hurbilago batean)
- (18) Tibalt Txanpañakoa edo Txanpañako kondea (hangoa zelako eta hango kondea zelako)
- (19) Hugo Capet (kasu honetan ere dinastiaren sortzailea izena da)
- (20) Karlomagno (kasu berezia, tradizioak onartua, eta erabaki beharreko salbuespen horietako bat dena³⁶).

Errealitatearen konplexutasuna ikusteko, azken aipu hau jarriko dut amaitzeko:

Donna Joana, por la gracia de Dios, reyna de Castilla, de Leon, de Granada, de Toledo, de Galizia, de Seuilla, de Cordova, de Murçia, de Jaen, de los Algarbes, de Algezira, de Gibraltar e de las yslas de Canaria e de las Yndias, yslas e tierra

³⁶ Argitu beharrik ez da egonen, baina, badaezpada, esan dezagun, *Karlomagno* euskal forma, ez datorrela *Carlomagno* gaztelaniazkotik, baizik eta biak datozen *Carolus Magnus* latineko formatik baizik.

firme del mar oceano, priçeza de Aragon e de las Dos Seçilias, de Iherusalem, archiduquesa de Avstria, duquesa de Borgonna e de Brauante, etcetera, condesa de Flandes e de Tyrol, etcetera, sennora de Vizcaya e de Molina, etcetera.³⁷

Egia da, erreinu gisa aipatzen diren asko ez direla horrela izendatzen historiografian (ez bada oso une zehatzetan) eta batzuk ez direla oso errealak (Jerusalemgoa kasu).

BIBLIOGRAFIA

- AFNOR. 1999. *Formation des bibliothécaires et documentalistes: normes pour l'épreuve de catalogage*. Paris: AFNOR.
- Anglo-American Cataloguing Rules*. 1998. Canadian Library Association [etab.].
- Azkue Biblioteka 2002. "21. erregela Printze subirano eta antzekoen sarrera nagusia egiteko katalogazio-erregela" [txostena]³⁸.
- Diccionario 3000 Hiztegia*. 1996. Adorez 7. Bilbo.
- . 2002. Adorez 7. 2. arg. Bilbo.
- Elhuyar. 1991. *Munduko leku-izenak euskaraz emateko erizpideak eta izendegia*. Donostia-Usurbil: Elkar - Elhuyar.
- . 1992. *Munduko pertsona-izenak euskaraz emateko erizpideak eta izendegia*. Donostia - Usurbil: Elkar - Elhuyar.
- Elhuyar hiztegia. Euskara-Gaztelania. Castellano-vasco*. 2000. 2. arg. Usurbil: Elhuyar.
- Euskal deituren izendegia*. 1998. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. 1995. Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa.
- Euskaldunon Egunkaria. 1995. *Estilo liburua*. [Andoain]: Egunkaria.
- . 2001. *Estilo liburua*. [Andoain]: Egunkaria.
- Gorrotxategi Nieto, M. 2001. *Euskal izendegia. Ponte izendegia*. Gasteiz-Bilbo: Eusko Jaurlaritza-Euskaltzaindia.
- Gran Larousse Universal*. 1995. Bartzelona: Plaza & Janés, 25. liburukia.
- Hegats: literatur aldizkaria*. 2002. *Prosa zientifikoari buruzko I. biltzarra (aktak)*, Donostia: Euskal idazleen elkarte, 30. zenbakia.
- Irigoiñ, A. 1994. *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*. Euskal Herria saila 12, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (Euskal Ikaskuntzen Institutua).
- Leizarraga, J. 1990. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria*. Bilbo: Euskaltzaindia [1571].
- Lukowski, J. eta Zawadzki, H. 2002. *Historia de Polonia*, Madril: Cambridge University

³⁷ Burgosen, 1512ko abenduaren 23an egindako dokumentua, Durangoko Udal Artxibategi historikoan gordetzen dena (2. armairua, 2(1) legajoa, 2. zenbakia) (ZZ.EE. 1989: 175. dokumentua).

³⁸ Ohar hau aprobetxatu nahi dut eskerrak emateko Pruden Gartzia Dr. jaunari, Azkue Bibliotekako Zuzendari denari, txostena hau utzi didalako eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkiot lan hau egiteko orduan eman dizkidan ideia eta ildoengatik, zeintzuk gabe herren geratuko baitzen.

Press.

Lur Hiztegi Entziklopedikoa. 1998. Gallarta: Lur.

———. 1998. *Euskal Herria. Historia*. Gallarta: Lur.

———. 1998. *Gai Unibertsalak. Historia*. Gallarta: Lur.

María Moliner. Diccionario de Uso del Español. 1998. 2. arg. Madril: Gredos.

Mugica Berrondo, P. 1973. *Diccionario Castellano-Vasco*. 2. arg. Bilbo: Mensajero.

Real Academia de la Lengua Española. 2001. *Diccionario de la Lengua Española*. 22. arg. Madril: Espasa [liburuki bakarra].

Sarasola, I. 1996. *Euskal Hiztegia*. 2. arg. Donostia: Gipuzkoa Donostia Kutxa.

Subrahmanyam, S. 1998. *Vasco de Gama*. Bartzelona: Crítica.

UZEI. 1979. “Histori Hiztegirako Aurreproiektua” [argitaratu gabeko txostena]³⁹.

Watson, J. W. 1969. *Errialde Guztien Historia*. Bartzelona: Timun Mas [jatorrizko argitalpena 1955ekoa da; ale honen itzultzailea Joan Goikoetxea Maiza, Manuel Lekuonaren ardurapean].

ZZ. EE. 1989. *Colección documental del Archivo Municipal de Durango III*. Fuentes documentales medievales del País Vasco 22. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

³⁹ Eskerrak eman nahi nizkioke Miel Loinazi proiektuaren kopia bat emateagatik.